

2024

3. hiruhilekoa

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA
Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO
Dirección de Economía y Planificación

EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

LABURPENA	3
EKONOMIAREN INGURUNEA	5
EAE-KO EKONOMIA	9
Ekoizpena eta enplegua	9
Barne eta kanpo eskaria	14
Prezioak, soldatak eta kostuak	21
Arlo publikoa	25
Arlo finantzarioa	27
Aurreikuspenak	33

Irudien aurkibidea

Munduko ekonomia. BPGa (I)	5
Munduko ekonomia. BPGa (II)	7
Enpleguaren bilakaera	12
Etxebizitzaren hipoteken bilakaera	31
2024ko eta 2025eko aurreikuspenak (I)	40
2024ko eta 2025eko aurreikuspenak (II)	41

Taulen aurkibidea

Eskaintzaren aldagaiak	9
Jardueraren adierazleak	10
Eskariaren aldagaiak	14
Kontsumo eta inbertsioaren adierazleak	15
Esportazioak produktuen arabera	17
Esportazioen helmuga	18
Inportazioen jatorria	20
Kontsumoko prezioen indizearen banaketa	21
EAEko kontsumoko prezioen indizea	23

Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak.....	24
Lan kostuak	24
Tributu itunduen bilakaera (urtarrila-abuztua).....	26
Adierazle monetario eta finantzarioak (I)	27
Adierazle monetario eta finantzarioak (II)	30
Kreditu eta gordailuak.....	32
Ekonomia aurreikuspenak.....	35
Espainiako ekonomiarako aurreikuspen ekonomikoak (2024ko iraila)	36
Aurreikuspenak egiteko hipotesiak (2024ko iraila).....	37
EAEko ekonomiarako aurreikuspenak hiruhilekoka (2024ko iraila)	39

LABURPENA

EAEko ekonomia %1,8 hazi zen 2024ko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Horrek esan nahi du luzatu egin dela 2021aren hastapenean hasitako hazkunde erritmoaren moteltzea, data horretan BPGaren hazkunde tasa ezohiko %6,7ra iritsi baitzen, pandemia gairatu ondoren gertatu zen suspertzearekin lotuta. Adierazi behar da Eustatek, Eurostatek ezarritako politikari jarraiki, 2021etik aurrerako hazkunde datuak berrikusi dituela, eta, beraz, orain arteko datuek erakusten zuten egonkortasuneko profila dezeleraziorako joera bihurtu da, 2022ko eta 2023ko hazkunde bere garaian aurreikusitakoa baino handiagoa izan baitzen. Nolanahi ere, bigarren hiruhilekoko hazkunde datua oso gertu dago Ekonomia Zuzendaritzak aldi horretarako egindako aurreikuspenetik (%1,9), eta nabarmen gairatzen ditu euroaren eremuko emaitzak (%0,6).

Europako herrialde nagusietako batzuk erakusten ari diren ahultasuna industriaren jarduera faltaren ondorioa da, eta horrek Euskadiko sektoreari ere eragiten dio. Hori horrela izanda, EAEko industriako balio erantsia urte arteko %0,4 baino ez zen hazi bigarren hiruhilekoan, aurreko datuen azpitik argi eta garbi. Manufakturen atalean, atonia are handiagoa da, eta gehikuntza tasa %0,1era mugatu zen, aurreko emaitzen ildotik. Dinamismo falta hori azaltzen duten arazoietako batzuk kanpo eskariaren ahultasunarekin, finantzaketa kostu handiekin, teknologia batzuen garapenari buruzko ziurgabetasunarekin eta eremu geopolitikoko tentsioekin lotuta daude.

Bestalde, eraikuntzak %1,5eko igoera izan zuen balio erantsian, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago soilik, baina zazpi hiruhilekoz luzatzen ari den intentsitate galeraren bidean. Sektoreak aurre egin beharreko kostuek gora egiten jarraitzen dute, nahiko intentsitate handiarekin, bai lehengaien atalean, bai eskulanaren atalean. Beste aldetik, eskura dagoen koiunturazko informazioak adierazten du eraikinen atalak tonu sendoa duela hiruhilekoko bilakaeran, eta ingeniari zibilak, oso hazkunde erritmo handiak jaso bazituen ere, nabarmen moteldu duela bere bizitasuna.

Zerbitzuek hazkunde iraunkorraren irudia ematen jarraitzen dute, balio erantsiaren %2,3ko hazkundearekin, aurreko bi aldietan lortutakoaren oso antzekoa. Zerbitzu taldeen araberako banaketan, merkataritza, ostalaritza eta garraioa barne hartzen dituen atala berraktibatu egin dela ikus daiteke, %1,0 hazi baita eta hiru hiruhilekotan azeleratu baita. Era berean, sektore publikoari gehien lotutako jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak) gero eta bilakaera hedakorragoa izan zuten, eta urte arteko tasa %2,8koa izan zen. Azkenik, gainerako zerbitzuek hazkunde erritmoa moteldu zuten, baina oraindik hazkunde esanguratsua lortu zuten (%2,7).

Eskariaren ikuspegitik, adierazi behar da kanpokoarekin (atzerria gehi gainontzeko autonomia erkidegoak) egindako merkataritza salerosketak pixka bat suspertu direla; hala, esportazioek eta inportazioek atzean utzi dituzte aurreko hiruhilekoetako jaitsierak, eta urte arteko hazkunde txikiak erregistratu dira. Lehenengo kasuan, aldakuntza tasa %2,1 izan zen, eta bigarrenean, berriz, %2,0. Bi emaitza horien konbinazioak iradokitzen du kanpo saldoak BPGaren hazkundeari egindako ekarpena oso txikia izan zela. Hori ez dator bat Eustatek berriki berrikusi duen 2023ko emaitzarekin, ekarpen hori oso garrantzitsua izan baitzen eta ehuneko puntu batetik hurbil kokatu baitzen.

Beste behin ere, EAeko BPGaren hazkundearen pisua barne eskariari egokitu zitzaion, %1,7 hazi baitzen, lehen hiruhilekoan baino puntu erdi bat gutxiago, baina 2023 osoan erregistratutakoaren antzeko balioa (%1,8); beraz, agregatu makroekonomikoaren tonu orokorrari eutsi egin zaio. Barne eskariaren bi osagai nagusiek antzeko bilakaera izan zuten, bai aurreko datuarekin alderatuta, bai 2023ko batez bestekoarekin alderatuta. Izan ere, kapital eraketa gordinak (%1,6) intentsitatea galdu zuen lehen hiruhilekoaren aldean, bai taldeko inbertsioaren atalean, bai gainerako inbertsioaren atalean. Bestalde, azken kontsumoko gastuak (%1,8) hiru hamarren moteldu zuen tasa: kontsumo pribatua (%1,7) ekonomiaren batez besteko hazkundetik (%1,8) hurbil mantendu zen eta administrazio publikoen kontsumoa esanguratsua izan zen (%2,2), baina aurreko hiruhilekoan lortutakoa baino pixka bat apalagoa.

Kontsumo pribatuaren bilakaera ona, neurri handi batean, EAeko ekonomia lortzen ari den enplegu sorkuntza garrantzitsuan oinarritzen da, bigarren hiruhilekoan enpleguaren hazkunde tasa %1,9 izan baitzen, aurreko bost hiruhilekoetako emaitzen ildotik. Termino absolutuetan, tasa horren ondorioz, lanaldi osoko 18.300 lanpostu inguru sortu ziren, eta horiek zerbitzu jardueretan kontzentratzen dira oso bereziki (16.500 lanpostu inguru), baina industriak ere ekarri zuen enplegu kopuru handi bat (2.000 lanpostu inguru), beste sektoreetako galera txikiak konpentsatzen dituena.

Inflazioa joera positiboa izaten ari da, eta abuztuan, Euskadiko datuak eskuragarri dauden azken hilekoa baita, urte arteko tasa %2,6koa izan zen, eta bi hilabetez jarraian %3,0ren azpitik egon zen. Gainerako ekonomia garatuek ere beheranzko joera erakutsi dute, eta, horri esker, banku zentral nagusiek interes tasak murriztu dituzte, eta, horrekin batera, enpresek eta familiek jasaten dituzten kostuak gutxitu.

Eskuragarri dagoen koiunturazko informazio berriari eta testuinguruaren hipotesiak eguneratzeari esker, 2024 eta 2025 urteetarako taula makroekonomiko berria osatu da, ekainean egindakoaren oso antzekoa. Zehazki, kalkulatu da BPG errearen hazkundea %1,9 izango dela aurrean, eta datorren urtean bizkortze leun bat gertatuko dela, %2,1 arte. Bestalde, enplegua %1,7 haziko da aurrean eta bi hamarren motelduko da 2025ean, %1,5ean kokatu arte.


EKONOMIAREN INGURUNEA

Aurtengo bigarren hiruhilekoan, munduko jarduera ekonomikoak eta nazioarteko merkataritzak hedatzeko erritmo sendoa eta egonkorra erakutsi zuten. Urteko bigarren sei hilekoan erritmo horri eustea aurreikusten da. Inflazioak moteltzen jarraituko duela espero da.


Zehatzago adierazita, azaleratzen ari diren herrialdeetan, dinamismo ekonomikoak behera egin du aurtengo lehen hiruhilekoko hazkundearekin alderatuta. Horrek konpentsatu egin zuen, partzialki, herrialde aurreratuetan ikusitako gorakada, eta, ondorioz, maila globalean erregistratutako egonkortasuna lortu zen. Bereziki, Txinan hazkunde ekonomikoak moteldu egin zen ekonomia horren azpiko ahuleziengatik. Higiezinaren sektorearen dezelerazioak kontsumo pribatuko gastua oztopatu zuen, eta 2023aren amaierako pizgarri programaren zerga bultzada desagertu egin zen. Orobat, familien eta enpresen konfiantza eskasak eta AEBekin dituen merkataritzako tentsioek mugatu zuten hazkundea. Esportazioak izan ziren hazkundearen eragile bakarra. Ondorioz, herrialdeko BPGaren hazkunde tasa %4,7ra jaitsi zen, lehen hiruhilekoan erregistratutako %5,3tik.

Munduko ekonomia. BPGa (I) Urte arteko aldakuntza tasak

ELGA



Txina



Iturria: ELGA.

Indian, jarduera ekonomikoak %6,8 hazi zen, tasa garrantzitsua baita, baina aurreko bi hiruhilekoetako %8,1 eta %8,7 baino txikiagoa. Hala eta guztiz ere, bere ekonomiaren sendotasuna bere horretan mantendu zen. Kontsumo pribatua %7,4 hazi zen eta esportazioak urtebete batean inoiz lortu duten mailarik altuenera iritsi ziren. Hala ere, kontsumo publikoaren

eta inportazioen gehikuntza txikiagoak dinamismoa kendu zion hazkundeari. Azkenik, Mexikok aurreko joera positiboa luzatu zuen, 2021eko bigarren hiruhilekotik etengabe hazi baitzen, baina herrialde horrek ere tonua galdu zuen aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Zehazki, %1,0 hazi zen, eta lehen hiruhilekoan, berriz, %1,8.

Herrialde aurreratuen bilakaerari dagokionez, ELGaren jarduera ekonomikoak %1,7ko hedapen erritmoari eutsi zion, azken urte eta erdian ikusitako hazkundearen ildotik. AEBetan, enpleguaren sorrera motelduz joan zen arren, gainerako adierazle ekonomikoek ekonomia sendoa erakusten jarraitu zuten. Izan ere, hazkunde tasa handiagoa izan zen aurreko hiruhilekoaren aldean (%3,0, lehen hiruhilekoko %2,9aren aldean), kontsumoaren sendotasunak eta inbertsio pribatuak bultzatuta, %2,7 eta %5,6 igo baitziren, hurrenez hurren, eta inbentarioen metaketa handiagoa izan baitzen. Langabezia tasa %4,0tik gora hazi bazen ere, munduko ekonomia nagusien artean txikiena izaten jarraitu zuen, eta inflazioa %2,5era jaitsi zen abuztuan, txikiena 2021eko otsailetik. Datu horietan oinarrituta, badirudi AEBetako ekonomiaren sendotasuna ez dagoela arriskuan, eta horrek urrundu egiten ditu balizko atzeraldi batek eragin dituen beldurrak.


Japoniako ekonomia, bere aldetik, ez zen gai izan suspertzeko. Inflazio iraunkorrek eragina izan zuen Japoniako familien erosteko ahalmenean, eta horrek berriro murriztu zuen kontsumo pribatua. Hala ere, ekonomiaren uzkurdura %0,2ra jaitsi zen apiriletik ekainera bitartean, hobekuntza esanguratsua aurtengo lehen hiruhilekoan izandako %1,8ko jaitsierarekin alderatuta. Era berean, inbertsio finkoaren eta esportazioen hazkundeak ere behera egin zuten, hiru urtez etengabe hazi ondoren, %0,2 jaitsi baitziren. Gastua eta inbertsio publikoa bakarrik handitu ziren, %0,8 eta %0,6, hurrenez hurren, aurreko bi hiruhilekoetako murrizketen ondoren. Oro har, Japoniako BPG %0,9 murriztu zen, eta hamarren bat hobetu zen aurtengo lehen hiruhilekoaren aldean. Inflazioaren kontrola da bere beste erronka nagusia, eta apirilean %3,5era igo ondoren, abuztuan %3,0raino jaitsi zen.

Euroguneko ekonomiak pixkanaka suspertzen jarraitu zuen pandemiaren eraginetik eta gerrak Ukrainan izan zituen ondorioetatik. Urtearen hasierak bukaera eman zion 2023aren amaieran nagusitu zen atonia ekonomikoari, hazkunde ia nuluekin; bigarren hiruhilekoan, berriz, euroguneko BPGak dinamismo handiago hori sendotu zuen, jarduera ekonomikoa %0,6 hazi baitzen, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago. Dinamika eta zifra horiek Europar Batasun osoan errepikatu ziren, non blokeko herrialdeak %0,8 hazi ziren aurtengo bigarren hiruhilekoan, urtarriletik martxora %0,7ko gehikuntza erregistratu ondoren. Bi kasuetan, hazkunde batez ere zerbitzuen sektorearen bizitasun handiagoak bultzatu zuen, eta industria ekoizpenak, ordea, jarduera ahulagoa erakutsi zuen.


Herrialdeka, Alemaniako ekonomiak suspertzeko zailtasunei aurre egiten jarraitu zuen eta bere ahultasuna kronikoa bihurtzen ari da. 2022ko udaberritik, hango ekonomiaren hazkunde tasa zerotik zertxobait gora eta behera ibili da, eta ez da hobekuntza handirik espero aurtengo hirugarren hiruhilekorako. Barne eskariak oso ahula izaten jarraitu zuen. Inbertsioak behera egin du etengabe 2022aren amaieratik, eta kontsumo pribatuaren susperraldia oso geldoa da (%0,0). Alemaniako familiek nahiago dute aurreztu kontsumitu baino, soldatak prezioak baino nabarmen azkarrago igotzen ari diren arren. Halaber, pandemiak horniduran eragindako botila lepoen ondoren, industriaren zati handi batek eutsi egiten ziola zirudien, pilatutako eskaera koltxoi bati esker, baina agortu egin da jada. Eskaera berrien sarrerak bost hilabete daramatza beheraka. Horri munduko ekonomiaren ahultasuna eta energiaren prezio altuak, nazioarteko estandarrekin alderatuta, gehitu behar zaizkio, Alemaniako industria sektoreari ere eragiten baitiote.

Munduko ekonomia. BPGa (II) Urte arteko aldakuntza tasak

AEB



Eurogunea



Iturria: Eurostat eta BEA.

Frantziako ekonomiak ere ez du bere BPGa sendotu. Urtearen hasieran %1,5eko hazkunde jaso ondoren, bigarren hiruhilekoan Frantziako ekonomiak erritmoa apaldu zuen berriro (%1,0). Barne eskariak motelduta jarraitu zuen kontsumo pribatu apatikoak (%0,7), batez ere elikagaien erosketaren jaitsierak (-%1,6) eta erregaiaren garestitzeak eraginda, eta beherakadan gero eta gehiago sakontzen duen inbertsioak eraginda (-%1,8). Kanpoko sektoreak eutsi zion jarduera ekonomikoari esportazioen gorakadari esker, itsasontzi berri baten salmentaz baliatu baitziren. Hirugarren hiruhilekorako jarduera ekonomikoak gora egitea aurreikusten da, Parisko Joko Olinpikoak direla eta.

Espainiak, bere aldetik, harridura eragin zuen lortutako goranzko hazkundeari esker. Aurtengo bigarren hiruhilekoan izan zuen %3,1eko BPGarekin, bere ekonomiaren indarra erakutsi zuen eta eurogunekoa baino askoz gehikuntza handiagoa izan zuen. Hazkunde hori handiena izan zen 2023ko lehen hiruhilekotik, eta ekonomia orekatu batek eragin zuen; izan ere, barne eskariak eta kanpo eskariak ekarpen positibo bana egin zioten jarduera ekonomikoari. Italia, azkenik, %0,9 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gehiago, inbertsioaren sendotasunak eta esportazioen hazkunde txikiak bultzatuta, kontsumo pribatuaren gainbeherari aurre egitea lortu baitzuten.

Lan merkatuak bere sendotasunari eutsi zion. Euroaren eremuko langabezia tasa %6,4 izan zen joan den uztailan, ekaineko datuaren eta 1999an seriea hasi zenetik izandako minimoaren azpitik. Europar Batasunean, berriz, datua egonkor mantendu zen, %6,0an, bosgarren hilabetez jarraian, baita erregistroen hasieratik izan duen mailarik baxuenean ere, Eurostatek argitaratutako datuen arabera. Datu horien arabera, euroaren eremuko langabeen kopurua 11 milioitik behera geratu zen. Datu hori ez da inoiz ezagutu erregistroak daudenetik, eta Europar Batasunekoak 13 milioi inguru izan dira. Espainiako jarduera ekonomikoaren sendotasuna lan merkatura igaro zen, baina beste hilabete batez langabezia tasarik handiena izan zuen (%11,7). Azkenik, euroguneko inflazioa %1,8ra jaitsi zen irailean, hiru urte baino gehiagoko minimoetan. Datu on horiek aukera eman diote Europako Banku Zentralari (EBZ) bere diru politikaren aldaketari patxadaz ekiteko eta interbentzio tasa %3,5era jaisteko.

Laburbilduz, munduko ekonomiak erresilientzia nabarmena erakutsi zuen, eta joera horrek aurtengo bigarren erdian jarraitzea aurreikusten da. Hori posible izango da barne eskaeren hobekuntzari esker, batez ere kontsumo pribatuari eta inbertsioari dagokienez, interes tasen erlaxazioak bultzatuta, bai eta nazioarteko merkataritzaren bilakaerak eta izakinen zikloan ikusi berri den aldaketak bultzatuta ere. Hala ere, dinamika positibo horien atzean kezka batzuk daude.

Lehenik eta behin, munduko ekonomia nagusien arteko hazkunde erritmoaren aldeak nabarmenak izaten jarraitu zuen. AEBek %3,0 inguruko hazkunderekin dinamismo handiari eustea lortu zuten, Eurogunek ez zuen suspertzea lortu, Txinak espero baino hazkunde txikiagoarekin harritu zuen eta Japoniak egoera deprimituan jarraitu zuen. Bigarrenik, inflazioaren bilakaerak erakutsi zuen, azken hilabeteetan mailaz mailako apaltzea izan arren, azpiko inflazioaren gaineko presioek, bereziki zerbitzuen prezioetan, bere horretan jarraitu zutela, banku zentral gehienek helburuen gaintetik mantenduz. Azkenik, jarduera ekonomiko globalaren sendotasunak zerbitzuen indarrari eutsi zion, eta manufakturek, pixkanaka suspertzen hasiak ziruditenak, berriz ere ahultasun zantzu argiak erakutsi zituzten. Hala ere, analisten adostasunaren aurreikuspenek ez dute aldaketa nabarmenik aurreikusten jarduera ekonomiko globalaren hedapen erritmoan edo inflazioaren dezelerazio bidean.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

EAEko ekonomia %1,8 hazi zen 2024ko bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago, eta dezeleraziorako joera txikia erakusten du, pandemian hartutako murrizketak kendu eta ekonomia erabat irekitzean gertatu zen errebote handiaren ondoren. Hiruhilekoko hazkunde tasa oso gertu dago Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak ekainean egin zuen aurreikuspenetik, aldi horretarako aurreikusi zen hazkunde tasa %1,9 izan baitzen. Halaber, hazkunde erritmo hori testuinguru zail batean lortu zen, ziurgabetasun handiak, finantza kostu altuek eta gehiegizko inflazioak, konponbide itxurarik gabeko gatazka geopolitikoek eta inguruko herrialdeen eskari ahulak baldintzatuta. Bestalde, datuak garrantzi handiagoa hartzen du Europako herrialde askok izan dituzten emaitza eskasekin alderatuz gero. Zehazki, euroguneak %0,6ko urte arteko tasa izan zuen, EAEkoaren herena, Europar Batasuna dinamikoagoa izan zen eta %0,8ra iritsi zen, Alemania erabat geldituta dago (%0,0) eta Frantzia, Joko Olinpikoek bultzatuta, %1,0ra iritsi zen. Espainia da salbuespena eta %3,1eko hazkundera lortu zuen.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023	2023			2024	
			II	III	IV	I	II
BPG erreala	5,7	2,7	2,8	2,5	2,2	2,1	1,8
Nekazaritza eta arrantza	2,2	16,0	18,8	14,4	10,3	6,5	2,8
Industria eta energia	3,9	1,8	1,5	1,7	2,0	1,1	0,4
- Manufakturen industria	4,5	0,2	-0,4	-0,2	0,4	0,3	0,1
Eraikuntza	5,8	2,6	2,6	2,3	1,8	1,7	1,5
Zerbitzuak	6,7	3,0	3,2	2,6	2,2	2,4	2,3
- Merkat., ostalaritza eta garraioa	12,6	1,1	1,0	0,3	0,1	0,8	1,0
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	3,0	0,9	0,5	0,5	1,5	2,6	2,8
- Gainontzeko zerbitzuak	5,0	5,4	6,2	5,4	4,0	3,3	2,7
Balio erantsi gordina	5,9	2,8	2,9	2,5	2,2	2,1	1,8
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	3,4	1,7	1,4	2,0	2,2	2,2	2,1

Iturria: Eustat.

Europarako aipatuta den testuinguru ekonomikoaren ondorioz, industria jarduerak ez du gorakadarik izan eta zerbitzuek oraindik ere nolabaiteko bultzadari eusten diote, nahiz eta hedapena geldiarazten ari diren. Hori, neurri handiagoan edo txikiagoan, euroaren eremuko herrialde handietan nabari da, baina baita Euskadin ere, non industriaren balio erantsia %0,4 baino ez zen hazi bigarren hiruhilekoan. Gainera, manufakturen bultzada txikiagoa izan zen, hamarren bat baino ez baitzen igo, eta energia izan zen, beste hiruhileko batez, aldi horretan jarduera onena izan zuen osagaia.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023	2023			2024	
			II	III	IV	I	II
Industria							
Industria produkzioaren indizea	5,7	0,1	-1,8	-0,7	1,2	0,2	-0,8
Negozio zifren indizea	26,4	-0,4	-7,7	-1,2	-5,5	-9,4	-1,9
Industria giroaren indizea (maila)	1,1	-14,9	-15,8	-15,3	-16,0	-15,1	-2,9
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,2	1,2	1,3	1,0	1,2	1,2	1,1
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	14,0	8,5	9,4	9,8	6,8	3,1	3,7
Etxebizitza berriak eraikit. oniritziak	-13,7	-17,4	7,3	-14,3	-9,7	12,0	---
Etxebizitzen salerosketak	9,1	-13,6	-19,6	-14,8	-17,5	-11,9	-0,9
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,7	0,8	0,9	0,7	0,4	0,1	-0,3
Zerbitzuak							
Merkataritza salmenten indizea	8,7	-0,3	-1,6	-1,8	-0,9	-1,6	0,2
Merkatuko beste zerbitzu batzuen	16,6	4,6	5,2	2,3	0,1	2,2	1,4
Negozio zifren indizea	15,2	2,9	1,5	1,2	-1,0	-3,3	1,4
Hegazkinen bidezko bidaiariak	100,7	24,0	19,9	17,1	17,8	13,9	7,4
Hoteletan igarotako gaualdiak	54,2	12,0	11,2	7,9	7,4	9,2	2,8
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,4	1,8	1,7	2,1	2,2	2,2	2,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerio, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industriari buruzko koiunturazko informazio berrienak seinale kontrajarriak eskaintzen ditu. Hala, uztailen industria ekoizpenak ez du adierazten sektorea suspertzen hasi denik, baizik eta bigarren hiruhilekoko tonu apur bat uzkur mantentzen dela. Zehazki, IPIa -%0,8koa zen bigarren hiruhilekoan, eta -%1,1ekoa, berriz, uztailen. Ondasun multzoen arabera, ekipamendurako ondasunen ekoizpena da positiboan mantendu den bakarra, baina horrek ere moteltzeko joera

txikia izan du (%3,1 bigarren hiruhilekoan eta %1,2 uztailen). Gainerako taldeek aldakuntza tasa negatiboak izan zituzten, bai bigarren hiruhilekoan, bai uztailen. Energia ekoizpenak okerrera egin zuen pixka bat (-%3,3), eta kontsumoko ondasunen (-%2,1) eta tarteko ondasunen (-%1,3) beherakada leundu egin zen. Sektoreko negozio zifrak errekuperazio faltaren ideia babesten du, uztailen erregistratutako datua (-%3,6) ere bigarren hiruhilekoko batez bestekoa (-%1,9) baino txikiagoa baita.

Hala eta guztiz ere, sektorearen iritzia jasotzen duten adierazleek irudi itxaropentsua ematen dute hirugarren hiruhilekorako. Izan ere, industria giroaren indizeak argi eta garbi hobetu zuen emaitza bigarren hiruhilekoan, lehen hiruhilekoan -15,1 batez besteko balioa izatetik bigarrenean -2,9 izatera igaro baitzen, hobetzen jarraitzeko eta uztailen eta abuztuko batez bestekoa -0,6 izatera iristeko. Kontuan izan behar da indize horrek oso gutxitan lortzen dituela balio positiboak, eta, beraz, egungo mailak nahiko baikortzat hartu behar dira. Bilakaera positiboa, ia soilik, enpresek jardueraren etorkizuneko joerari buruz duten pertzepzioan kontzentratzen da, eta eskaera zorroa egonkor mantentzen da eremu negatiboan. Hobekuntza oso garrantzitsua da enpleguari buruzko igurikimenetan ere, 2018tik izan duten baliorik handienera kokatzen baitira.

Eraikuntzak ere moteltzeko joera leunaren irudia eskaintzen du, eta horren ondorioz, pandemiaren errebotean lortu zen % 9,4 hazkunde tasa hartatik aurtengo bigarren hiruhilekoan jasotako %1,5era eraman du balio erantsia. Apaltzeko erritmoa zertxobait moteldu egin da azken hiruhilekoetan, eta badirudi egonkortzeko joera erakusten ari dela. Interes tasen jaitsierak sektorearen jarduera bultzatzea dezake, baina oraindik kostu handiei aurre egiten die, bai lehengaien prezioari dagokionez, bai eskulanari dagokionez. Eskuragarri dagoen koiunturazko informazioak iradokitzen duenez, bultzada handiena eraikinen atalean gauzatu da, bigarren hiruhilekoan %4,6 igo baitzen, eta ingeniarietako zibilean, berriz, %1,8, aurreko aldietan gorakada handiak izan ondoren.


Zerbitzuek ez diote ihes egiten ekonomiaren moteltze globalari, baina, hala ere, beren aldakuntza tasa handiagoa da, eta azken hiru hiruhilekoetako irudia egonkortasuneko da. Izan ere, zerbitzuen balio erantsia %2,3 handitu zen bigarren hiruhilekoan, aurreko bi aldietako balioen ildotik. Sektorea osatzen duten jarduera taldeek joera kontrajarriak izan zituzten. Esate baterako, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen atalak hazkundera bizkortu zuen tasa oso apaletatik, eta %1,0ko igoera izan zuen. Bestalde, sektore publikoari gehien lotutako jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak) aurreko erregistroak hobetu zituzten, eta urte arteko %2,8ra iritsi ziren, azken hiruhilekoetako zifra handienetako bat delarik. Azkenik, gainerako zerbitzuek intentsitatea galdu zuten, baina oraindik %2,7ko aldakuntza erregistratzeko gai izan zen.

Zerbitzuen sektoreko datu berriek, uztailari eta abuztuari dagozkienak, turismoa zerbitzu jardueraren sustatzaile gisa izan duen indarra agortu egin dela iradokitzen dute. Hain zuzen ere, hotel establezimenduetan igarotako gaualdien kopuruaren hazkundera moteldu egin zen aurtengo lehen hiruhilekoan jasotako %9,2tik bigarreneko %2,8ra, eta aipatutako udako bi hilabeteetako batez besteko hazkundera, berriz, %1,7koa izan zen. Beste aldetik, EAEko aireportuetatik bidaiatzen duen bidaiari fluxua digitu bikoitzera igo zen aurtengo lehen hiruhilekora arte, aldakuntza tasa %7,4ra apaldu zen bigarrenean, eta jaitsiera txikiak izan zituen uztailean eta abuztuan (-%0,9 batez beste), hain zuzen ere bidaiarien trafiko handiena duten urteko bi hilabeteetan.


EAEko ekonomiak bizi duen moteltzeko joerak, oraingoz, ez du islarik izan lan merkatuaren datuetan, egungo egoera onaren zutabe nagusietako bat izaten jarraitzen baitu. Enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, %1,9 hazi zen aurtengo bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoetako tasaren oso antzekoa baita eta 2023ko batez bestekoarekin bat datorrena. Eustaten arabera, EAEko ekonomiak, guztira, lanaldi osoko 986.407 lanpostu behar izan zituen bigarren hiruhilekoko BPGa sortzeko. Azken urteetako kopururik handiena da hori eta 2023ko aldi bererako zenbatetsitakoak baino 18.300 enplegu gehiago dira. Enplegu kopuru horretatik, gehienak (16.500 inguru) zerbitzu jardueretan sortu ziren, eta beste 2.100 enplegu inguru industria alorreko lanpostuetan. Bai lehen sektoreak bai eraikuntzak enplegua galdu zuten bigarren hiruhilekoan, nahiz eta azken kasu horretan dozena gutxi batzuk baino ez ziren izan.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza.

BJAn argitaratutako informazioaren arabera, bigarren hiruhilekoan enpleguak izan zuen hazkundearen sexuaren arabera banaketa nahiko antzekoa izan zen: gizonen artean enpleguaren hazkunde tasa %1,9 izan zen eta emakumeen artean, berriz, %2,0. Horren ondorioz, guztira 515.800 gizon eta 476.800 emakume ari dira lanean, eta 16 eta 65 urte bitarteko pertsonen okupazio tasa %70,9ra eramaten dute; gizonen tasa %73,9 da, eta emakumeena, berriz, %67,9. Beraz, bi sexuen arteko aldea sei puntukoa da orain, eta murrizteko joera txiki bat hautematen da.

Hirugarren hiruhilekoko lan merkatuari buruzko informazioaren arabera, moteltzeko joera bat gertatu da, eta horrek esan nahi du urtarorearen joera ez dela ohikoa izan aurretik. Zehazkiago, Gizarte Segurantzako afiliazioak %1,9 inguruko igoerak izan zituen bi hiruhilekotan, baina zertxobait apaldu zen bigarren hiruhilekoan (%1,7) eta abuztuan (azken datu ezaguna) %1,1era jaitsi zen. Jarduera adarren arabera analisiak iradokitzen du beherakada handia dagoela hezkuntzako afiliazioan, ikasturtearen amaierarekin lotuta. Kontratuak udan amaitu ohi dira, baina aurretik ez diren afiliazioen kopurua ohi baino handiagoa izan da. Zehazki, 2023an, hezkuntzako afiliazioa ia 12.000 pertsonatan murriztu zen udan, eta 2024an zifra hori ia 15.000koa izan da, hezkuntzako afiliazio kopuru osoa 85.500 delarik. Espero izatekoa da ikasturtea hastearekin batera kopuru horiek berreskuratzea eta ohiko enplegu mailetara itzultzea.

Lan merkatuak bizi duen une onak pertsona berriak erakartzen jarraitzen du, eta biztanleria aktiboa erritmo garrantzitsuan ari da handitzen. Hain zuzen ere, bigarren hiruhilekoan, urte arteko tasa %1,9 izan zen, bai gizonen kasuan bai emakumeen kasuan, eta biztanleria aktiboa 20.000 pertsona inguru igo zen azken urtean, bi sexuen artean ia zati berdinetan banatuta. Biztanleria aktiboaren eta landunaren hazkundera kontuan hartuta, langabezia dauden pertsonen kopurua pixka bat igo zen, %1 baino gutxiago, 80.100 pertsonaraino, eta horietatik 39.400 emakumeak ziren. Horrek %7,5ean kokatzen du langabezia tasa osoa, aurreko urteko aldi bereko tasa baino hamarren bat beherago. Emakumeen kasuan, langabezia tasa %7,6 da, eta gizonena, berriz, %7,3. Duela urtebete zegoen diferentziala pare bat hamarren murriztu da, baina oraindik hiru hamarren daude bien artean.

BPG errealearen (%1,8) eta enpleguaren (%1,9) hazkundera itxurazko produktibitate galera txiki bat utzi dute bigarren hiruhilekoan (-%0,1), eta hori ezohikoa da, baina gerta daiteke unean-unean. EAEko ekonomiaren bi sektore nagusiek portaera negatiboa izan zuten, eta hori, hain zuzen ere, lan merkatuaren murrizketaren ondorio da, eta hazkunde horrek balio erantsia bera gaitzen du. Industriaren kasuan, enplegua %1,0 hazi zen eta balio erantsia %0,4 baino ez; zerbitzuetan, berriz, tasak %2,4 eta %2,3 izan ziren. Jarduera ekonomikorik gabe enplegua sortzeak adierazten du igurikimenak baikorrak direla eta enplegu hori etorkizunean beharko dela. Eraikuntzak kontrako profila erakutsi zuen, balio erantsiaren igoerarekin (%1,5), eskulana handitu gabe (-%0,1).

Barne eta kanpo eskaria

Eskariaren ikuspegitik, bigarren hiruhilekoaren ezaugarria izan zen hazkundearen pisua ia eksklusiboki barne eskariarena izan zela, eta kanpo saldoak BPGaren hazkundeari egindako ekarpena, berriz, ia hutsala izan zela. Aurreko bi hiruhilekoetan ez bezala, non kanpoarekiko merkataritza trukeak (Estatuko gainerakoa eta atzerrikoa) balio errealetan murriztu ziren, bigarren hiruhilekoan esportazioak eta inportazioak hazi egin ziren (%2,1 eta %2,0, hurrenez hurren).

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023	2023			2024	
			II	III	IV	I	II
BPG erreala	5,7	2,7	2,8	2,5	2,2	2,1	1,8
Gastua azken kontsumoan	6,7	1,7	1,5	1,1	1,8	2,1	1,8
- Familien gastua kontsumoan	7,8	1,9	1,7	1,2	1,9	1,9	1,7
- Adminis. gastua kontsumoan	3,1	1,3	1,1	0,8	1,8	2,6	2,2
Kapital eraketa gordina	8,7	1,8	1,7	1,5	2,0	2,4	1,6
- Ekipamendu ondasunak	14,4	3,1	2,5	2,6	3,1	2,9	1,6
- Gainontzeko inbertsioa	5,3	1,0	1,2	0,7	1,3	2,0	1,7
Barne eskaria	7,2	1,8	1,6	1,2	1,9	2,2	1,7
Esportazioak	13,7	1,0	1,5	0,3	-1,6	-2,0	2,1
Inportazioak	15,9	-0,2	0,0	-1,3	-2,0	-1,8	2,0

Iturria: Eustat.

Zehatzago adierazita, EAEko barne eskaria %1,7 handitu zen hiruhilekoan, lehen hiruhilekoan baino puntu erdi bat gutxiago, baina 2023 osoan baino hamarren bat gutxiago soilik (%1,8). Beraz, eskaintzen duen hondoko irudia erritmoari eustekoa da, gorabehera puntualekin. Aurreko aldiarekin alderatuta, azken kontsumoko gastuak eta kapital eraketa gordinak moteldu egin zuten hazkunde erritmoa, baina lortutako emaitzak ez dira oso desberdinak 2023ko batez besteko balioetatik.

Azken kontsumoko gastutik hasita, aldakuntza tasa %1,8 izan zen, ekonomia osoaren hazkundearen ildotik. Lehen hiruhilekoaren aldean hiru hamarren moteldu bada ere, 2023ko batez bestekoa baino hamarren bat handiagoa da. Familien kontsumoa %1,7 hazi zen, aurreko

bi aldietan baino pixka bat gutxiago, baina oraindik erritmo esanguratsua da, lan merkatuaren sendotasunean eta soldata igoeran oinarritzen dena, inflazio tasak kontsumitzera bultzatzen ez bazuen ere. Bestalde, administrazio publikoen kontsumoa %2,2 igo zen, ekonomiaren batez bestekoaren gainetik, baina aurreko hiruhilekoko zifrara iritsi gabe, azken urte eta erdiko handiena izan baitzen.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023	2023			2024	
			II	III	IV	I	II
Kontsumoa							
Azalera eta kate handietako salmentak	-1,4	0,5	0,8	1,5	0,3	0,2	-0,7
Txikizkako merkataritza indizea	4,5	3,1	4,4	3,1	0,4	1,4	0,9
Kontsumo ondasunen ekoizpena	4,5	0,2	1,6	-1,8	-2,0	0,8	-4,6
Kontsumo ondasunen inportazioa	17,6	1,0	-6,9	1,5	-4,9	-16,2	-6,3
Turismoen matrikulazioa	-8,8	5,9	1,7	-6,7	11,1	2,7	0,5
Inbertsioa							
Ekipo ondasunen ekoizpena	9,4	4,1	0,0	4,4	7,2	3,4	3,1
Ekipo ondasunen inportazioa	21,3	10,5	7,9	2,2	6,6	-12,1	2,3
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-13,5	15,5	19,5	18,0	16,7	14,5	3,8
Etxebizitza berriak eraikitzeako oniritziak	-13,7	-17,4	7,3	-14,3	-9,7	12,0	---
Lizitazio ofiziala	54,2	-26,1	20,3	-19,1	-65,2	19,7	29,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Bestalde, kapital eraketa gordinak %1,6ko igoera izan zuen, aurreko bi aldietakoa baino nabarmen txikiagoa, baina ekonomiaren batez bestekoa baino bi hamarren gutxiago soilik. Bi osagaiek antzeko bilakaerak izan zituzten: ekipamenduan egindako inbertsioa %1,6 hazi zen, eta gainerako inbertsioa, eraikuntzan egindakoa barne, %1,7 gehitu zen. Inbertsioa geldiarazten duten arrazoietakoa batzuk honako hauek dira: abagune ekonomikoa inguratzen duen ziurgabetasuna, EAEko enpresentzat garrantzitsuenak diren atzerriko merkatuetatik datorren eskariaren ahultasuna, proiektu berriei ekiteko finantzaketa garestitzen duten interes tasa altuak, eta tentsio geopolitiko larriko testuinguruan produkzio kateek ondo funtzionatzeari buruzko zalantzak. Hala eta guztiz ere, adierazle koiuntural batzuek pentsarazten dute agregatu makroekonomiko horrek erritmoa bizkortu dezakeela datozen aldietan. Adibidez, ekipamendu ondasunen inportazioa balio positiboetara itzuli da, eta bai etxebizitzak eraikitzeako baimenek,

bai lizitazio ofizialak, eraikuntzako inbertsioaren adierazle aurreratuak izanik, datu positiboak erregistratzen dituzte.

Lehenago ere adierazi den bezala, aurtengo bigarren hiruhilekoan, kanpo saldoak ia ez zion inolako ekarpenik egin BPGaren hazkunderari, esportazioek (%2,1) eta inportazioek (%2,0) izandako hazkundeak, balio errealetan, oso antzekoak izan zirelako. Ekarpena ia hutsala izateak ez du esan nahi esportazioen eta inportazioen bolumena txikia izan zenik, baizik eta esportazioen ekarpen positiboa inportazioen ekarpen negatiboarekin konpentsatu zela. Izan ere, unean uneko terminoetan, ondasunen eta zerbitzuen kanpo salmentek 18.516 milioi euroko balioa izan zuten, azken aldietako kopururik handiena, hau da, BPGaren %76. Inportatutako ondasun eta zerbitzu guztiek 18.513 milioi euroko balioa izan zuten, BPGaren gaineko ehuneko berarekin.

Esportazio horien zati handi bat atzerrira bakarrik bideratzen diren ondasunei (zerbitzurik gabe) dagokie eta Aduana Zuzendaritzak kontabilizatzen ditu mugetan. Guztira, aurtengo bigarren hiruhilekoan 8.297 milioi euro balio zuten ondasunak saldu ziren atzerrian, hots, aurreko urtean saldutakoa baino %2,0 gehiago. Igoera apala da, baina aurreko hiruhilekoetan izandako beheranzko joerarekin hausteko balio izan du. Beste aldetik, atzerritik ekarritako ondasunen inportazioen balioa, guztira, 7.313 milioi eurokoak izan zen, kasu horretan %3,3ko urte arteko gehikuntzarekin.

Produktuen araberrako analisian, energia merkatua esportazioen emaitzan izaten ari den garrantzia egiaztatzen da; izan ere, hiruhileko horretan lortutako gehikuntza tasa erregai mineralen salmentari zor zaio, eta horrek aurreko urteko balioa bikoiztu zuen nabarmen, 607 milioi eurora iritsi arte. Aitzitik, energiaz bestelako produktuen esportazioa %2,0 murriztu zen, eta bost hiruhilekotan jarraian aldakuntza tasa negatiboak jaso ziren. Tasa horiek erakusten dute EAEko enpresen helmugako merkatu nagusiek, eta bereziki Alemaniak, pairatzen duten ahulezia.

Produktu talde handien artean, makinaren eta aparatuen esportazioaren abagune ona nabarmentzen da, %18,1eko hazkunde tasa lortu baitzuen eta bilakaera positiboa erakutsi baitu azken hiruhileko gehienetan. Aitzitik, ahulezia handienetako bat garraio materialaren salmentan dago, Euskadiko esportazio egituraren pisu handiena duen taldeetako bat, %8,1eko jaitsiera izan baitzuen eta bi hiruhilekoko jaitsierak jarraian lotu baitzituen. Metal arrunten eta horien manufakturen salmentak ere irudi kaskarra ematen du; izan ere, produktu horien zenbatekoa %3,6 murriztu zen urte batetik bestera, eta bost hiruhilekotan jarraian beherakadak jaso ditu. Gainerako produktu taldeek pisu txikiagoa dute esportazioen egituraren, eta kasu batzuetan 2023ko salmentak hobetzea lortu dute. Hori da paperaren kasua, %7,8ko hazkunde tasa izan

baitzuen, eta produktu kimikoena, %1,9koa, salmenten jaitsiera nabarmenen segidari amaiera ematen diona.

ESPORTAZIOAK PRODUKTUEN ARABERA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2022	2023	2023			2024	
			III	IV	I	II	II
GUZTIRA	26,8	0,3	-6,5	0,6	-15,9	2,0	8.297.345
Erregai mineralak	108,8	-31,2	-52,7	7,3	0,3	112,6	606.900
Ez-energetikoak	22,2	3,4	-0,8	-0,1	-16,9	-2,0	7.690.445
Nekazaritzakoak	35,1	2,9	-14,9	-17,6	-41,1	-15,5	442.231
Kimikoak	29,4	-11,6	-20,9	-18,6	-10,9	1,9	227.680
Plastikoak eta kautxua	17,1	6,7	4,2	3,4	-19,1	-17,8	480.654
Papera	31,9	-17,3	-28,5	-26,0	-14,2	7,8	212.968
Metal arruntak	27,3	-12,7	-14,6	-18,2	-20,1	-3,6	1.802.326
Makinak eta aparatuak	13,0	8,7	10,1	7,2	-1,5	18,1	1.808.597
Garraio materiala	18,5	19,1	12,8	19,9	-17,8	-8,1	2.163.935
Gainerakoak	31,2	3,6	1,9	-0,5	-16,4	-2,4	552.054

Iturria: Eustat.

Esportazioen hazkundera herrialde garatuetara eta garapen bidean dauden herrialdeetara egindako bidalketetan gauzatu zen. Lehenengo kasuan, igoera %1,6 izan zen, eta bigarrenean, berriz, %4,6. Beraz, apenas dago aldaketarik herrialde bloke bakoitzak EAEko enpresentzat duen pisuan: %85 herrialde garatuetara bideratzen da, eta gainerako %15a, ordea, garapen bidean dauden herrialdeetara. Zenbatekoak, hurrenez hurren, 7.063 milioi eurokoak eta 1.234 milioi eurokoak izan ziren.

Atzerrira bidalitako ondasunen esportazioen erdia baino gehixeago euroaren eremura bideratu zen, guztizkoaren %53,6 biltzen baitu, baina pisu-galera txiki bat nabari da ekonomia horien ahuleziaren ondorioz, merkatu alternatiboen bilaketarekin konpentsatzen dena. Izan ere, bigarren hiruhilekoan euroaren eremura egindako esportazioak %1,5 murriztu ziren, eta bost hiruhilekotan jarraian egin zuten behera urtetik urtera. Arloko salmenten zati handi bat garraio materialari dagokio, %11,8ko jaitsiera izan baitzuen. Esportazioen beste osagai nagusiak ere, metal arruntak eta beren manufakturak, okerrera egin zuen (-%4,5), plastikoen eta kautxuaren salmentak bezala (-%18,3).

ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2022	2023	2023		2024		
			III	IV	I	II	II
GUZTIRA	26,8	0,3	-6,5	0,6	-15,9	2,0	8.297.345
ELGA	27,1	1,4	-7,2	1,3	-16,2	1,6	7.062.895
Eurogunea	27,3	-3,4	-13,3	-3,1	-15,2	-1,5	4.449.304
Alemania	22,2	2,9	0,9	-4,3	-20,2	-15,2	1.171.385
Frantzia	20,3	-1,7	-4,7	-0,1	-3,1	5,8	1.277.239
Italia	29,8	4,4	9,7	4,7	-8,8	19,3	533.167
Erresuma Batua	17,0	3,0	-8,5	3,9	-15,1	26,7	653.883
AEB	41,9	21,2	22,0	15,6	-34,3	-8,0	534.994
ELGAtik kanpokoak	25,2	-5,3	-2,3	-3,4	-14,5	4,6	1.234.450

Iturria: Eustat.

Atzerrira bidalitako EAEko produktuen helmuga nagusia Frantzia izan zen beste hiruhileko batez, 1.277 milioi euro balio zuten produktuak saldu baitziren, aurreko urteko zenbatekoa baino %5,8 gehiago. Herrialde horretara egiten diren esportazioak ez dira produktu mota bakar batean fokatzen, hainbat ondasun multzotan banatzen direlako. Hala, bigarren hiruhilekoan metal arrunten salmenta nabarmendu zen, %8,5 murriztu baitzen. Plastikoen eta kautxuen taldeak ere ez du emaitza onik lortu (-%12,6). Hala ere, beherakada horiek garraio-materialaren (%12,2) eta makina eta aparatuen (%12,7) bilakaera onak erabat konpentsatu zituen. Orobat, erregai mineralen salmentak indarra hartzen jarraitzen du (%131,1).

Bigarren helmuga nagusia, garrantziari dagokionez, Alemania da berriro, 1.171 milioi euroko esportazioekin. Kasu honetan, ordea, kontzentrazio handia dago garraio materialean, EAEko ondasunek merkatu horretara egiten dituzten salmenta guztien erdia biltzen duena. Herrialdeko automobilgintzak bizi duen une txarrak faktura pasa zuen eta bidalketen %21,6ko beherakada eragin zuen. Metal arruntek ere ez zuten bilakaera positiboa izan (-%12,2). Aitzitik, makinaren esportazioa %5,6 hazi zen, baina horien pisua aipatutako taldeena baino txikiagoa da.

Italia gero eta pisu handiagoa hartzen ari den merkatua da EAEko enpresentzat, eta herrialdera egindako esportazioak %19,3 handitu ziren. Metal arrunten eta horien manufakturen salmenta nabarmentzen da, %21,4ko hazkundera lortu baitzuten. Gainera, deigarria da garraio materialaren salmenta, Alemanian ez bezala, %12,0 hazi izana, bederatzi hiruhilekoz jarraian aldakuntza tasa positiboak izan baititu.

Erresuma Batua da pisua irabazten ari den beste herrialde bat, 654 milioi euro balio zuten EAEko produktuak erosi baitzituen, aurreko urtean baino %26,7 gehiago. Hazkunde horren zati handi bat orain arte ezohikoa izan den erregai mineralak saltzeagatik gertatu da. Partida hori 2023ko bigarren hiruhilekoan sei milioi euro baino gutxiago izatetik aurten 132 milioi euro baino gehiago izatera igaro da. Baina garraio materialaren (%14,8) eta makina eta aparatuen (%37,6) esportazioek ere hazkunde nabarmenak lortu zituzten.

AEBetara bidalitako esportazioek %8,0ko beherakada izan zuten, eta herrialde hartan saldutako guztizkoa 535 milioi eurokoa izan zen. Duela urte batzuk, merkataritza harremana erregai mineraletan oinarritzen zen, eta horiek beste produktu talde batzuei utzi zieten lekua, hala nola garraio materialari. Hala ere, aurtengo bigarren hiruhilekoan salmenta makinen eta aparatuen esportazioan oinarritu da, %51,2 hazi baita eta salmenta guztien ia erdia bildu baitu; garraio materialaren esportazioa, berriz, %81,1 murriztu da. Metal arruntek ere ez zuten lortu beren posizioak finkatzea (-%10,7).

Garapen bidean dauden herrialdeek %4,6 gehitu zuten EAEko ondasunen erosketa, 1.234 milioi euro guztira. Herrialde talde horri egindako salmentak, batez ere, makinetan, tresnetan eta garraio materialean kontzentratzen dira, esportazio guztien erdia baino gehiago hartzen baitute. Horietako bakoitzaren bilakaera desberdina izan zen; izan ere, makineriaren balioa 2023koa baino %6,8 txikiagoa izan zen, eta garraio materialarena, berriz, nabarmen igo zen (%45,3). Garrantzia gehien duen ondasunen hirugarren multzoak, metal arruntek eta beren manufakturrek, igoera txiki bat izan zuen, %1,2koa.

EAEko produktuen erosketak handitu zituen garapen bidean dauden herrialdeetako bat Txina izan zen, 207 milioi eurora iritsi baitzen, aurreko urteko zenbatekoa baino %4,3 gehiago eta hiruhilekoko laugarren hazkundera jarraian. Garraio materiala (%19,4) da esportazio horien oinarria. Brasilen kasuan, herrialdean egindako salmentak 75 milioi eurokoak izan ziren, 2023an baino %8,9 gehiago, eta makineria da osagai garrantzitsuenetakoa. Bestalde, Errusiara egindako esportazioak berriro murriztu ziren (-%34,6) eta 11 milioi eurora baino ez ziren iritsi, herrialdeari ezarritako zigorren ondorioz.

Inportazioek ere hazkunde neurritsua izan zuten bigarren hiruhilekoan, 7.313 milioi eurora iritsi arte, aurreko urteko aldi berean baino %3,3 gehiago. Erosketen hazkunde horren zati handi bat erregai mineraletan zentratu zen, inportatutako guztiaren laurdena baino zertxobait gehiago baitira eta %18,2 gehitu baitziren. Aitzitik, energiaren bestelako inportazioak pixka bat murriztu ziren (-%1,5). Alde positiboan, garraio materialaren erosketa nabarmentzen da, %23,5 igo baitzen, baina makineriaren (-%11,6) eta metal arrunten eta manufakturen (-%2,2) emaitza txarrekin konpentsatu zuten, erosketen egituraren ere garrantzi esanguratsua baitute.

Inportazioak arloka banatzean, garapen bidean dauden herrialdeak izan ziren onuradun, aurreko urtean baino %30,2 gehiago saldu baitzieten EAEko enpresei. Aitzitik, herrialde garatuetatik etorritako produktuen inportazioa %7,8 murriztu zen, eta bosgarren jaitsiera jarraian izan zen. Herrialdekako portaerak adierazten du jaitsiera nagusiak Alemanian eta AEBetan gertatu zirela. Lehenengo kasuan, garraio materialaren erosketak %15,1 hazi zen, baina makineriaren eta metal arrunten jaitsierak konpentsatu zuen. Ipar Amerikako herrialdearen kasuan, beherakada erregai mineralak gutxiago erostearen ondorio da; garraio materialak, berriz, bilakaera oso esanguratsua izan zuen. Aitzitik, Frantziatik ekarritako inportazioak pixka bat igo ziren (%1,8) eta aurreko hiruhilekoetako jaitsierak hautsi zituzten.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2022	2023	2023			2024	
			III	IV	I	II	II
GUZTIRA	39,7	-8,9	-15,8	-17,9	-8,7	3,3	7.312.560
ELGA	32,5	-2,1	-4,9	-16,2	-9,7	-7,8	4.609.961
Eurogunea	22,3	1,7	0,8	-7,5	-8,3	-3,0	3.080.277
Alemania	21,5	5,3	9,0	-6,4	-8,2	-3,9	1.024.282
Frantzia	21,8	-13,1	-11,4	-17,1	-10,8	1,8	566.491
Italia	15,7	0,1	4,0	-5,0	-1,5	-0,5	340.275
Erresuma Batua	42,5	-39,8	-1,8	-42,3	-8,5	10,0	187.198
AEB	207,0	-13,8	-22,1	-31,3	10,6	-27,5	327.823
ELGAtik kanpokoak	54,5	-21,0	-32,0	-21,1	-6,3	30,2	2.702.599

Iturria: Eustat.

Aipatutako esportazio eta inportazioen ondorioz, atzerriarekiko ondasunen merkataritza saldoak 985 milioi euroko superabita izan zuen, Euskadiren aldekoa. Ohi bezala, energia saldoa negatiboa izan zen berriro ere, 1.425 milioi euro guztira, eta saldo ez-energetikoa positiboa izan zen, 2.410 milioi eurora iritsiz. Aipatutako hiru zifrak 2023ko hiruhileko berean izan zirenen antzekoak dira. Merkataritza saldoa Euskadiren aldekoa izan zen herrialde garatuekiko harremanetan, eta 2.453 milioi euroko superabita lortu zuen haiekin, baina kontrakoa izan zen garapen bidean dauden herrialdeekiko trukeetan, 1.468 milioi euroko defizitari eutsi baitzion. Herrialdeka, Frantzia da berriro merkataritza superabit handiena lortu duen herrialdea, 711 milioi eurora iritsi baita. Erresuma Batuekin ere superabit oso esanguratsua lortu zen (467 milioi euro).

Prezioak, soldatak eta kostuak

Prezioak aztertzen dituzten adierazleen bilakaerak aurreko aldietako apaltzeko joera berretsi zuen. Hori horrela izanda, eta BPGaren deflatorearekin hasita, 2023aren hastapenetan hasi zen moteltzeko joerarekin jarraitu zuen, hazkunde erritmoa murriztuz joan diren prezioei eustearen ondorioz. Zehazkiago adierazita, deflatoarea bi hamarren apaldu zen, lehen hiruhilekoko %3,2tik bigarreneko %3,0ra igaro baitzen, zerbitzuen sektorearen eta, neurri txikiagoan, industriaren bilakaeraren ondorioz.

KPI indizeari dagokionez, adierazle horrek %2,6an amaitu zuen abuztua, aurreko urteko uztailetik izandako mailarik baxuenean, alegia. Horrela, hiru hilabetez jarraian moteldu da bere hazkunde bilakaera, eta aldi horretan urte arteko aldakuntza tasa 1,3 puntu jaitsi zen. Neurri hori elikagaien kostu txikiagoak eragin zuen, eta, batez ere, erregaien merkatze nabarmenak.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2022	2023	2024			Ekarpena
			I	II	Abuztua	
Inflazio osoa (%100)	8,0	3,6	3,3	3,6	2,6	2,6
Azpiko inflazioa (%84,6)	5,1	6,2	3,7	3,1	3,0	2,5
- Elikagai landuak (%15,4)	10,2	12,5	5,6	4,8	3,9	0,6
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	4,7	1,8	0,9	1,0	0,2
- Zerbitzuak (%49,0)	3,3	4,3	3,9	3,5	3,4	1,7
Hondar inflazioa (%15,4)	19,5	-6,4	1,1	6,2	0,9	0,1
- Landu gabeko elikagaiak (%6,5)	10,8	7,3	5,4	5,6	2,7	0,2
- Energia (%8,9)	26,6	-17,0	-2,6	6,0	-1,0	-0,1

Iturria: INE.

Hain zuzen ere, elikagaien prezioen igoera txikiena izan da 2021. urtearen amaieratik, %3,6ko erregistroarekin, aurreko urtean lortutako %15etik gorako balioetatik urrun dagoen tasa baita. Elikagaien garestitze hori oso lotuta egon zen nekazaritza ekoizpenarekin, erregaien prezioen beherakadak mesede egin baitzion, eta, horri esker, jaitsiera hori elikagaietara ere eraman ahal izan da.

Era berean, KPlaren igoeren moteltzea eragin duen faktore nagusia energiaren bilakaera da. Azken asteetan, Brent motako upela 70 dolar inguruko balioetan kokatu da, 2024 urte osoan zehar izan duen baliorik txikiena izanik. Horrela, uztaileen hasieratik, petrolioaren prezioa beheranzko dinamika batean sartu da eta horrek LPEE behartu du petrolio gordinaren ekoizpenaren igoera atzeratzera, merkatzen jarrai ez dezan. Merkatze hori azaltzen duten arrazoietakoz batzuk AEBetan erregistratutako moteltze ekonomikoa eta, batez ere, Txinako kontsumoaren beherakada dira.

